

3. Konpromiso

Taldearen 6. bilera

2019ko maiatzak 22

.....

Bileraren helburua

Jasotako proiektu pilotuen proposamenak baloratu eta aberastea, eta I-lab ekimenaren gobernantza-eredua garatzen jarraitzea, zenbait terminotan: kidetza, parte hartzeko espazioak eta erabakiak hartzeko espazioak.

Parte-hartzaileak

Javier Bikandi, Koldobike Uriarte, Gotzon Bernaola, Goizalde Atxutegi, Nerea Ollokiegi, Itziar Solozabal, Elsa Fuente Do-Rosario, Mikel Barturen, Olatz Jiménez, Aitzol Batiz, Danel Alberdi, Mikeldi Zeberio, Antxon Gallego, Jon Abril, Itziar Calvo, Miren Arbelaiz, Arrate Arias.

Gai-zerrenda

Galdetegiko emaitzen eta jasotako proiektuen aurkezpena

Ane Abarrategik (TIPI) galdetegian jasotako emaitzak aurkeztu ditu, eta datu hauek eman ditu: jasotako erantzun kopurua, irizpiderik baloratuenak, irizpideei egindako ekarpenen laburpena, eta proposatutako beste zenbait irizpide.

Era berean, proiektu pilotuetarako jaso diren proposamen guztiak aipatu dira, eta aurrez hautatu diren 10 proiektuei buruzko azalpen luzeagoa eman da. Hauek izan dira aurre-hautaketarako lehenengo bereizketa egiteko irizpideak: proiektuak herritarren parte-hartzearekin duen lotura eta proiektua ulertzeko informazio nahikorik ote dagoen.

Hona hemen aurrez hautatu diren 10 proiektuak:

- Etxebizitza publiko komunitarioak - Hiritik At kooperatiba
- Mugi Paisaia - Askari Elkartea
- thinking Fadura - Getxo Kirolak
- Berrikuntza Soziala eta Trantsizio Energetikoa - Javier Castro eta Javier Echeverria
- Appsambla - DEMIUM startup azeleragailua (Clara del Río)
- GazteaGO - Gasteizko Udala
- Eskailera - La escalera eta Madrilgo Udala
- Erosketa Publiko Etikoa - ALBOAN Fundazioa
- Herritarren parte-hartze prozesuen potentzial salutogenikoa - Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila
- Alokairu kontzienteak - Arteale Fundazioa

Banakako balorazioa

Aurrez hautatutako eta baztertutako proiektuak jasotzen dituzten zenbait paneletan, parte-hartzaile bakoitzak proiektuak baloratzen ditu, galdetegi publikotik eratorritako irizpideen arabera. Hauek izan dira balorazio irizpideak:

- Talde publiko-pribatu batek gobernatua.
- Berritzailea kontzeptualizazioan.
- Administrazioan eta herritarren eskumenetan aldaketak sorrarazteko potentziala.
- Atsegin dut.

Balorazioa bateratzea

Egindako banakako balorazioa irakurri du Ane Abarrategik (TIPI).

Banaka egindako lehenengo balorazioaren emaitza [dokumentu honen “Akta” atalean](#) dago jasota.

Proiektu pilotuen potentziala aztertzea

Proiektu batzuk aukeratu, eta ikusi behar da horietako bakoitzak nola elikatu dezakeen I-lab ekimena. Era berean, ikusi behar da I-lab ekimenak nola aberastu dezakeen proiektuen garapena.

Horretarako, taldea 4 mahaitan banatzen da eta fitxa baten inguruan egiten du lan. Fitxa horretan 3 proiektu aukeratzen dituzte gehienez, eta galdera hauei erantzuten saiatzen dira:

- Zein ekarpen egingo lioke I-lab ekimenak proiektuari?
- Zein ekarpen egingo lioke proiektuak I-lab ekimenari?

Egindako hausnarketak [dokumentu honen “Akta” atalean](#) daude.

Gobernantza-ereduaren erreferentziak aurkeztea

Itsaso Larramendik (TIPI) Haurren Hirien Sarea, Q-epea eta Wikitoki proiektuen gobernantza-ereduak aurkeztu ditu, inspirazio-iturri gisa hartzeko eta puntu interesgarriak ateratzeko beren gobernantza-egituretatik. Horietako bakoitzean, arlo hauek jorratu dira:

- Kidetza
 - Kide izateko baldintzak
 - Kide izatean hartzen diren konpromisoak
- Parte hartzeko espazioak
- Erabakiak hartzea
 - Erabakiak hartzeko espazioak
 - Agenteak espazio horietan

Erreferentzien balorazioa

I-lab ekimenaren gobernantza-eredua definitzen jarraitzea eta horretan sakontzea, Haurren Hirien Sarea, Q-epea eta Wikitoki proiektuetatik abiatuta.

Horretarako, taldea 4 mahaitan banatzen da eta adibide bakoitzetik interesgarriak edo transferitzeko modukoak diren alderdien zerrenda prestatzen du, bai eta alarmei edo zalantzei buruzko beste zerrenda bat ere.

Ariketa honetan jasotako alderdiak [dokumentu honen "Akta" atalean](#) daude.

Itxiera

3. Konpromiso Taldearen lan-prozesuko hurrengo urratsak eta mugarriak aipatu dira, eta gogorarazi da ekainaren 20an Foro Irekia egingo dela Euskadiko Artxibo Historikoan.

Akta

Banakako balorazioa bateratzea

Proiektuak baloratzeko orduan, batzuek adierazi dute aurkeztutako proiektuak, orokorrean, oso definituta daudela eta interesgarria izango litzatekeela, proiektu zehatz eta landuak martxan jartzeaz gain, I-lab ekimenak proiektuei buruzko ideiak sustatzea, erronkei aurre egin ahal izateko balioko duten partaidetza-bideak zerotik eraiki ahal izateko. Hau da: I-lab ekimena tresna bat ere izan behar da, modu kolektiboan eraiki ahal izateko.

Hona hemen 3. Konpromiso Taldeko parte-hartzaileek banaka egindako balorazioari buruzko irakurketa orokorra:

- Irakurketa kuantitatiboa: aurkeztutako proiektu bakoitzak jaso duen boto kopurua.
 - 39, Herritarren parte-hartze prozesuen potentzial salutogenikoa
 - 18, Mugi Paisaia
 - 17, Berrikuntza Soziala eta Trantsizio Energetikoa
 - 16, Etxebizitza publiko komunitarioak
 - 10, Eskailera
 - 7, Erosketa Publiko Etikoa
 - 7, thinking Fadura
 - 2, Etorkizuneko gizartea gu gara
 - 2, Euskadi: desberdintasun sozial txikiena duen Europako lurraldea
 - 1, GazteaGO
 - 1, Alokairu kontzienteak
 - 0, Appsamblea
- Irakurketa kualitatiboa: erabilitako balorazio-irizpideen arabera nabarmendutako proiektuak.
 - “Herritarren parte-hartze prozesuen potentzial salutogenikoa” proiektua nabarmendu behar da; izan ere, oso balorazio ona jaso du, aldaketak eragiteko potentzial handia duelako (batez ere, Osakidetzan) eta osasunaren gaia ingurunearen eta arlo komunitarioaren ikuspuntutik jorratzen duen proiektu bat abiaraztea aukera ona delako. Halaber, proiektu hau nabarmentzeko modukoa da, agente-mota ugari jarriko litzukeelako batera lanean (gizarte, osasun, hezkuntza, udal edota elkarte mailako agenteak).
 - “Mugi paisaia” proiektuaren kasuan, honako hau izan da baloratuena (duen ikuspuntu berritzaileagatik): herritarren parte-hartzearen bitartez, paisaiari buruzkoak diren eta HAPOetan eragina duten gidalerro eta erabakiak definitzea. Era berean, uste da proiektu honek herritarren eskumenetan aldaketak eragiteko gaitasuna duela, paisaiaren gaia lantzen duelako eta, horrela, paisaiatzat hartzen dugunaren ikuspegia zabaltzen duelako.
 - “Berrikuntza Soziala eta Trantsizio Energetikoa” proiektuak gaitasun nabarmen bat dauka: proiektu berean jartzen dituela

lanean erakunde publikoak, unibertsitateak eta ikerketazentroak, energiaren esparruko enpresa pribatuak eta mugimendu ekologistako elkarteak. Era berean, aukera ematen du gaurkotasan handia duen eta jorratu beharrekoa den gai baten inguruko proiektu pilotu bat martxan jartzeko.

- **“Etxebizitza publiko komunitarioak”** proiektuak aukera ematen du udalak etxebizitza komunitarioa hornidura publiko gisa sustatzeko dituen bideak aztertzeke, eta, ondorioz, gaitasuna dauka gaur egungo lege-esparruan eragiteko.
- Esan daiteke **“Eskailera”** (“Herriarren parte-hartze prozesuen potentzial salutogenikoa” delakoarekin batera) izan dela jendea gehien gustatu zaion proiektua; izan ere, konponbideak proposatzen ditu gure hirietan gero eta ohikoagoa den errealitate baten aurrean: bizilagunen komunitateetako anonimatua eta harreman eza.
- **“Erosketa Publiko Etikoa”** proiektuari dagokionez, administrazioetan eta herritarrengan aldaketak eragiteko duen gaitasuna baloratu da; izan ere, tresna teknologikoak kontsumitzen dituen gizartea garen aldetik, gizarte eta ingurumen arloko irizpideak sustatzeko erantzukizuna dugu tresna horiek fabrikatzeko prozesuetan.
- Azkenik, **“thinking Fadura”** proiektuan, dagoeneko irekita dagoen prozesu horren bigarren fasean modu berritzailean aritzeko aukera aztertu da. Horretarako, lehenengo fasean jaso diren proposamenetako asko metabolizatu, iragazi eta aukeratu dira herritarrekin batera.

Proiektu pilotuen potentziala aztertzea

Ondoren, taldeetan egin den lanaren laburpena dago jasota.

Informazioa parte-hartzaileek aukeratutako eta garatutako proiektuen arabera dago antolatuta.

- **“Herriarren parte-hartze prozesuen potentzial salutogenikoa”**
 - Zein ekarpen egin diezaioke I-lab ekimenak proiektuari?
Proiektua testatzeko eta osasuna zenbait politika aktibotara (elikadurara, bizimodura, harremanetara, kulturara, ingurumenera eta abar) eramateko aukera; osasunarekin erlazionatutako irizpide berriak aurkitzeko eta irizpide horiek parte-hartze prozesuetan sartzeko aukera; prozesuaren gaineko parte-hartzea diseinatzeko laguntza, aholkularitza metodologikoa eta ikuspegi estrategikoa (baliabide pertsonalak eta materialak eskainiz); lurralde-ikuspegia.
 - Zein ekarpen egin diezaioke proiektuak I-lab ekimenari?
Agente preskriptore berri eta askotarikoak (Osasun Saila eta Gizarte Politiken Saila, arlo soziosanitarioko pertsonak, eta herritarrak); lurralde-mailan lan egiteko aukera; beste gai askorekiko zeharkakoa den lan-esparrua, herritar ugari integratzeko aukerarekin; epe ertainean, I-lab udal mailako

proiektu pilotu txikiagoetan testatzeko gaitasuna, I-lab eskala txikiagoan eta handiagoan inplementatzeko aukerarekin.

- **“Mugi paisaia”**

- Zein ekarpen egin diezaioke I-lab ekimenak proiektuari?
Metodologia diseinatzeko laguntza; adierazleak definitzeko parte-hartze prozesua; paisaiaren aldagaia baloratzeko aukera emango duten tresnak sortzea, paketean bilduta; agente politikoekiko lotura.
- Zein ekarpen egin diezaioke proiektuak I-lab ekimenari?
Arrotza eta zaila dirudien gai bat herritarrekin lantzeko moduak ikastea; konpondu beharreko arazo bat; benetako testatzea egiteko aukera; aldaketak prozedura instituzionaletan; hirikoak ez diren testuinguruetan inplementatzeko aukera, hiriburuen ohiko zentraltasuna hautsiz.

- **“Eskailera”**

- Zein ekarpen egin diezaioke I-lab ekimenak proiektuari?
Proiektuari konfiantza emango dion babes instituzionala (sendotasuna, bultzada eta komunikazioa); dinamika hori tokiko esparruan txertatzen ikastea, soilik komunitate zehatzetan aplikatu beharrean; Euskadiko testuingurura egokitutako eredu propioa sortzeko eta testatzeko aukera; ideia sustatzeko baliabideak.
- Zein ekarpen egin diezaioke proiektuak I-lab ekimenari?
Haurren rola (eta ez soilik pertsona nagusia) proiektuan txertatzeko eta rol horrek nolakoa izan behar duen pentsatzeko tresnak; arlo instituzionala gaingiditzen duen begirada; proiektua beste testuinguru batzuetan txertatzetik jasotako ezagutza.

- **“Etxebizitza publiko komunitarioak”**

- Zein ekarpen egin diezaioke I-lab ekimenak proiektuari?
Zenbait kolektiboren begiraden aniztasuna jasotzeko aukera; esparru juridikoa eta muga legalak; proiektua bermatuko duen protokoloa edo ordenantza-eredua sortzeko gaitasuna; etxebizitza-politikak aldatzeko aurreneko bidea.
- Zein ekarpen egin diezaioke proiektuak I-lab ekimenari?
Zenbait kolektiborekin egindako lanak emandako esperientziatik ikasitakoa, modu horretan I-lab ekimenaren begirada handituz; ikuspegi eta konponbide berriak, etxebizitza arazo gisa hartzen duen ohiko ikuspegiaren aurrean; gizarte zaharkituaren ondorioz, belaunaldien arteko eta erakundeen arteko arazoei emandako konponbideak.

- **“Berrikuntza Soziala eta Trantsizio Energetikoa”**

- Zein ekarpen egin diezaioke I-lab ekimenak proiektuari?
Parte-hartzean oinarritutako metodologiak, trantsizio energetikoaren prozesuetan integratu beharrekoak; protokoloak

finkatzea; proiektua sarearen bitartez gizarteratzea; baliabideen eraginkortasuna.

- Zein ekarpen egin diezaioke proiektuak I-lab ekimenari?
Herrialdeko erronka estrategikoei eta erronka globalei erantzuna ematea; inplikazioa maila askotan: maila pertsonalean, kulturean, sozialean, politikoan eta abar. Maila horietatik, ekoizpen-forma berriak erator litezke.
- **“Euskadi: desberdintasun sozial txikiena duen Europako lurraldea”**
 - Zein ekarpen egin diezaioke I-lab ekimenak proiektuari?
Erronkari ekiteko prozesua diseinatzea, honakoak definituz: nor, zertarako, nola eta abar; hau da: partaidetzan oinarritutako plangintza; proiektua eskalatzeko eta zuzentzeko aukera, zenbait administrazio-mailetatik (udaletatik hasi, eta aldundietaraino).
 - Zein ekarpen egin diezaioke proiektuak I-lab ekimenari?
Desberdintasunari buruzko adierazleen aginte-koadroa; desberdintasunek Euskadin gaur egun duten egoeraren argazkia.
- **“Gu gara etorkizuneko gizartea”**
 - Zein ekarpen egin diezaioke I-lab ekimenak proiektuari?
Metodologia zehatz bat hobetu eta protokolizatzeko aukera.
 - Zein ekarpen egin diezaioke proiektuak I-lab ekimenari?
Escola-komunitatearekin lan egiteko aukera; parte-hartzearen kultura sustatzea haurren artean.

Gobernantza-ereduaren erreferentziak baloratzea

Haurren Hirien Sarea, Q-epea eta Wikitoki proiektuen gobernantza-ereduak aztertzeko proposamenaren aurrean, parte-hartzaileek adierazi dute mota askotako instituzioak eta herritarrak uztartuko dituzten gobernantza-ereduak kontuan hartzeko beharrezkoa dutela, eta arlo hori ez dago jasota saioan jorratu diren 3 ereduetan. “Mintzola fundazioa” jarri da adibide gisa. Hortxe daude integratuta aldundiak, unibertsitateak, Bertsozale Elkartea eta Villabonako Udala, besteak beste.

Era berean, uste da I-lab espazio gisa ere erabil daitekeela, soziokrazia antolakuntza-eredu gisa inplementatzeko eta testatzeko. Sistema hori herri elkarteetan eta antolakuntza profesionaletan probatu izan da, baina ez erakundeak presente dauden egituretan.

Ondoren, taldeak interesgarritzat eta transferitzeko modukotzat baloratu dituen zenbait alderdi jaso dira zerrenda batean; eta beste zerrenda bat ere badago, alarmei edo saihestu beharreko alderdiei buruzkoa, Haurren Hirien Sarea (HHS), Q-epea (Q) eta Wikitoki (W) proiektuen gobernantza-ereduak erreferentzia gisa hartuta.

- Transferitzeko interesgarriak diren alderdiak:
 - Konpromisoak eman eta jasotzeko prest egotea (HHS, Q, W)
 - Idazkaritza teknika egotea (HHS, Q)
 - Sareak zerbait erabakitzen badu, kideek erabaki hori onartzea (HHS)
 - Proiektua abian jarriko dela udalbatzetan adostu beharrik jasangarritasuna bermatzen dio proiektuari (HHS)
 - Bazkideek kuota bat ordaindu beharra (Q, W)
 - Informazioaren eta emaitzen transferentzia (Q, W)
 - Zuzendaritza-karguen alternantzia (Q)
 - Kide diren erakunde guztien konpromiso komuna (Q)
 - Talde gutxi direnez, erraz kudeatzeko modukoa da (W)
 - Erabakiak adostasun bidez hartzeko sistema (W)
 - Erabakiak hartzeko eskumena lantaldeen esku uztea, eta, horrela, erabakitze espazioak deszentralizatzea (W)
 - Kide berriek hausnartu beharra zein ekarpen egin diezaioketen proiektuari, zergatik eta zertarako izan nahi duten kide (W)
 - Kide guztiek proiektuaren kudeaketan modu aktiboan parte hartzea (W)
- Transferentziarako sakonago aztertu beharreko alderdiak:
 - Jasangarritasun ekonomikoa (HHS)
 - Udaletan inplementatu beharreko eredu pertsonalizatzeko modukoa izatea, lehendik ere nazioarteko sare batek “balioztatutako” eredu bat egonda (HHS)
 - Kide izateko, aldeztu aurretik ibilbide jakin bat edukitzea. Beharbada, zorrotzegia (Q)
 - Lantaldeen, erabakiak hartzen dituzten pertsonen eta erakundeetako pertsonen arteko transferentzia-sistema (Q)

- Kideek ongizate komunaren alde duten borondate desinteresatua, eta parte-hartzearen eta boterearen arteko balantza erabakiak hartzeko: gehien parte hartzen duena al da gehien erabakitzen duena? (W)
- Soziokraziaren funtzionamendu zehatza (W)
- Modu irekian lan egiteko derrigortasuna (W)